

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Galdakao

Aurkibidea

Udalerria: Galdakao

Sarrera



Galdakao Bilboko eskualdean dago kokaturik, Ibaizabal beheko bailaran. Iparraldetik, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko herriein egiten du muga; hegoaldetik, Zaratamo eta Zeberioekin; ekialdetik, Zornotza, Lemoa eta Bediarenekin; eta, mendebaldetik, Etxebarri eta Basauriko herriein. Berez nekazar herria zenean industria ustiapena nagusituz joan zen XIX. mendetik. Harrobi, burdinola eta lehergailuen industrien garrantzia izan zuten. Galdakao etengabeko demografi hazkundera izan du, 50-60 urteetan Ibaizabal bailaran ezarritako industria ugaria dela-eta. Galdakao erdiguneaz, Kurtze, eta Usansolo auzoak gain beste auzo batzuk osatzen dute herria: Aterribai, Arketa, beke. Bengoetxe, Berezikoetxe, Elexalde, Erletxe, Olabarrieta-Txistulanda, Tximelarra, Urreta eta Zuhatsu. Inguruko beste herri handietan gertatu legez, Galdakao ere azken hamarkadotan euskararen ezagutzak behera egin du; bereizketa zabala dago herrigunetik landa-gunera.

Irudia: Galdakakoko udaletxea.

- **Biztanleak:** 29.049
- **Euskaldunak:** %39,63

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **15**
- Zintak: **34**
- Pasarteak: **59**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **4**

- Bideoak: **55**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Kepa Artetxe Atutxa (1939-2025)



Gurasoak arratiarrak zituen arren, Galdakaoko Elexalde auzoan jaio zen Kepa, Artekoetxe baserrian. Neba-arreba bi izan dira etxean, bera gazteena. Umetatik eduki du dantzarako zaletasuna eta horregatik, herriko lagun batzuekin batera, [Galdakaoko Andra Mari dantza-taldea](#) sortu zuten gazteak zirenean. Ordutik, Bizkaiko dantzak jasotzeari eta zabaltzeari ekin dio. Lanbidez ajustadore izan da Kepa; lehenengo Basconian, Edesan ondoren eta azkenik Praderan. Batez ere, Elexalde auzoko bizimoduaz eta giroaz egin genuen berba berarekin egon ginenean eta Andra Mari dantza-taldeaz eta euskal dantzez ere luze ibili ginen.

Libe Asua Zarrabeitia (1916-2019)



Elexalde auzoko Aldatze baserrian jaio zen 1916. urtean. Aita bere jaiotetxekoa zuen, Galdakaoko kanposantuko lurperatzailea. Ama Zornotzatik hurre dagoen Kortederra auzokoa zen. Galdakaoko plazan zegoen eskolara joan zen, euria egiten zuenean baino ez. Bederatzi urte zituela, Miguel Primo de Rivera beraren aurrean egon zen eskolaren irekialdian. 'Euzkadi' egunkaria irakurritz ikasi zuen irakurtzen, bere aita harpideduna baitzen. Hamabi urte zituela, neskame joan zen eta bertan zegoela irten zen errepublika. Ondo gogoan ditu orduko eta Gerra Zibileko garaiko kontuak. Hurbilekoek salatu ostean, aita Larrinagako kartzelan izan zuten preso; oraindik etxean ditu aita handik bidalitako gutunak. Aitari laguntzen zegoela, kanposantuan ere une gogorak bizi izan zituen. Gerraostean, Galdakaok euskararen zapalkuntza ikaragarria bizi izan zuen, kanposantuko euskarazko hilarriak ere apurtu zituzten, besteak beste. 1943an Larrabetzuko Mirasol baserrira ezkondu zen. Larrabetzun hainbat lan burutu zituen: emagin, praktikante, sasimediku edo kurandera, telefonista, arrakada-zuloak egiten... GAL-015 zinta 1986. urtean egindako grabazio bat da.

Benantzia Azkueta (1896)

Baserrian jaioa, umetatik soroan eta etxeko lan gogorretan aritu beharra izan zuen. Bederatzi urterako umezain hasi zen eta ondoren dinamita lantegian aritu zen lanean. 1936ko altxamendu militarrean, bonbardaketa jasan zuen etxean bertan eta neba hil zioten gerran. Ezkondu eta seme-alabak izan zituen.

Kontxi Belandia Lekue (1929-2020)



Bekelarre auzoan jaio zen, baina bost urte zituela Elexaldera joan ziren etxekoak eskola hurbilago izan zezaten. Ama Kortaederrakoa zuen eta aita Barakaldokoa. Ama lau seme-alaba txiki zituela alargundu zen eta Bilbon erositako arraina Galdakaon saltzean atera zuen bizimodua. Gerra Zibilean, etxetik irtenarazi eta Frantzia pasatu zituzten hiru urte errefuxiatuta. Herrira itzulera ez zen batera erraza izan; izan ere, beraien etxean beste batzuk bizi ziren ta kamara batean egon ziren bizitzen etxera bueltatu ahal izan ziren arte. Bizimodu gogorrek eraginda, Eibarren, Larrabetzun eta Dimako Indusi auzoan egon zen neskame eta umezain. Galdakaon Dinamita eta Kantabrika lantegietan ibili zen Plazakoetxeko gasolindegian beharrean hasi arte. Gasolindegian ezagutu zuen bere senarra izango zena, Bizente Bikandi. Gasolindegiko lana utzi, ezkondu eta Bizenteren etxea zen Herriko Tabernara joan zen bizitzen. Euskararen alde lan asko egindakoa da Kontxi, elkarrizketa garaian ere Berbalagun egitasmoko kidea zen.

Ageda Bengoetxea Azkueta

Felipe Ealo Ziarrusta (1921-2017)



Bedian jaio arren, sei bat urte zituela etorri ziren Galdakaora. Gurasoak ere arratiarrak zituen: aita Bediakoa eta ama Dimakoa. Bediako eta Galdakaoko eskoletara joan zen. Errepublika, gerra garaiko eta gerraosteko Galdakaoren berri eman zigun. 1938an, gerraostean, dinamita lantegian hasi zen beharrean eta 43 urtez bertatik atera zuen bizimodua.

Kastora Irigoien

1986. urtean egindako grabazioa.

Dominga Larrauri (1897)

Berezikoetxe baserrikoa. Baserrian lan egiteaz gain, gaztetan dinamita eta bolbora egiten ere lan egin zuen. Gerra bizi izan zuen eta Sopuertan pasatu zituen hiru aste familiarekin. Kantak, esaerak eta ipuinak dakizki.

Bernarda Larrea Asua (1924-2017)



Galdakaoko Urtebieta izeneko baserrian jaio zen eta gero Bengoetxeko Usabo baserrira ezkondu zen. Bost urte zituela, aita Dinamitako leherketa batean hil zitzaion. Ama, ostera, obus batek hil zuen gerran Artzentalesen ebakuatuta zeudela. Beraz, oraindik umea zela geratu zen umezurtz. Hala ere, zazpi urte nagusiagoa zen ahizpak bete zuen gurasoen lekua. Bizimoduaren gorabeherak zirela-eta, era guztietako lanak egin zituen umetan Bernardak: esnea banatu, uretan joan, etab. Hala ere, egunero bidali zuen amak eskolara. Errepublika garaiaz, Gerra Zibilaz, eskolaz eta etxeko giroaz egin genuen berba berarekin egon ginenean, besteak beste.

Jose Larrea Asua (1926-2020)



Abusu auzoko ostatuan jaio zen 1926. urtean, baina 1930ean Elexaldera joan ziren bizitzera. Gurasoak ere biak ziren Elexaldekoak. Aita Dinamita lantegiko behargina zen eta han egon zen gerra sasoian ere fabrika militarizatu zutenean. Etxekoak, ostera, auzoa utzi eta Sanfuentes (Abanto-Zierbena) aldera joan ziren. Elexadeko eskola ere apurtu egin zuten eta bitartean errexisatutako batzokiko eskolara eta partikularretara joan zen. Hamasei urte gaz aitagaz batera hasi zen Dinamitan beharrean. Oso ondo ezagutzen du herriko historia eta herrigintzan ere parte hartu izan du. 1964an urte luzez zarratuta egon zen Elexaldeko eliza zabaltzea lortu zuen eta gerraosteko lehen euskal jaiak antolatu zituen, besteak beste.

Agustin Sierra Oiarzabal (1899)

Galdakaoko Zamakoa auzokoa. Ama arratiarra zuen, Dimakoa; aita, berriz, Burgoskoa. 87 urte betetzear zegoen elkarrizketa egin zitzaionean.

Joseba Uribe Urtiaga (1930)



Larrabetzuko Urian jaio zen arren, sei bat urte zituela etorri ziren Galdakaoko Ibarluzera. Gurasoak ere larrabetzuarrak ziren. Bost neba-arrabatatik gazteena eta seme bakarra izan zen. Galdakaoko gerra aurreko ikastola ezagutu zuen, beraien etxepean baitzegoen eta bertako ikaslea izan zen. Gerraostean, ikastolako irakaslearen klase partikularretara eta Bilboko kolegio batera joan zen perito ikasketak egin aurretik. "Acción Católica" kide legez, Andra Mari dantza-taldeko sorrera eta beraiek antzeztutako antzerkiak ere ezagutu zituen. Eguzkibegi ikastolako sorreran parte hartu zuen beste hainbat guraso eta galdakoztarrekin batera. Dinamita lantegian eta euskarazko gau-eskoletan aritu izan da beharrean. [Kontxi Belandia](#)gaz batera eman zigun lehengo Galdakaoren berri.

Gregoria Urkiza Uriarte (1904)

Pantxike Yurrebaso Atutxa (1910)



Inozentzia Zamakona Olea (1906)

Galdakaoko Bengoetxe auzokoa. Etxekoandrea eta nekazaria.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Marrazkilari ona izan zen aita

- **Hizlaria(k)**: Asua Zarrabeitia, Libe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: GAL-002/001
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Euskara » Lexikoa
 - Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- **Laburpena**: Aitaren kartak gordeta ditu. Liberen aitak egindako ezkontza eguneko oroigarriaren irudia erakusten dute. Euskaraz idatzita dago eta oso marrazki onak egiten zituen.

Transkripzioa

- Hor dekozuz aitten karta danak e, kartzelako karta danak.
- Bai nik gordeta euki nauzen, neure alabie inda (...)

- hau ezkondu zien eguneko aitite ta amaman, berak eginda guztia eh.
- hau zer da zure ama ta aitte ezkondu zienekoa?
- Egunekoa.
- Gotxontar Asua eta Celesti...
- Celestina Zerrobeitia.
- Zerrobeitia, "edestija Asua eta Gotxonek, euzkeras. Beren ondoren guantzako idatzija. Galdakanon 1910eko lotasilan 28an". Lotasilla, zer da lotasilla?
- Ez dakit.
- Zer hillabetetan ezkondu zien?
- Nire aite zan euskaldune neto netoa.
- Baña noiz ezkondu zien zure ama ta aite, ze egunetan.
- Nik zer dakit, ez dakit.
- Bai baña, notasilla ze hillabete da ba? Semendia ta bai, zezella ta
- Ta berak inddako dibujok horrek eh, ez zan makala nire aite.
- Ah beittu hemen haziya, gariya... hori bai...
- Horrek idazkiek berak eindde danak eh, "el escudo de Galdacano".

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita ezin besarkatu (GAL-002/003)

Liberen aita Larrinagako kartzelatik bidalitako karta baten irudia erakusten da. Txarto jaten zuten kartzelan eta bisita egunetan arkumea eramaten zioten jateko. Aita ikustera joan zenean kartzelara, mututurik geratu zen, berak uste ez bezala, ez ziotelako besarkatzen utzi, ezta hurreratzen ere.

2. Alaba ausartak (GAL-002/004)

Agure baten bitartez paseak lortu zituzten aitarekin aurrez aurre egoteko Larrinagako kartzelan. Gero, harremana izaten jarraitu zuten; azkenean, egunkaritik enteratu ziren hil egin zela gizon hura.

3. Arratoiekin Larrinagako kartzelan (GAL-002/005)

Larrinagan torturatu egin zuten aita; arratoiekin izan zuten. Aitak Larrinagako kartzelatik idatzitako eskutitza irakurtzen dute.

4. Kanposantuko gurutzea apurtu (GAL-002/006)

Kartak ezin ziren euskaraz idatzi. Galdakaoko kanposantuan euskarazko hitzak zituenez gurutzeak, apurtu egin zieten. Beste batzuei ere apurtu zieten marmolezko hilobia.

5. Txokolate paperean ere idatzita (GAL-002/008)

Aitaren eskutitz eta ohar asko ditu Libek. Kantinploraren estalkiaren azpian pasatakoak dira asko. Etxetik bidalitako txokolate paperean idatzitako eskutitza erakusten da.

6. Polizia neba zaharrenaren bila (GAL-002/009)

Aitari urtebeteko kondena jarri zioten. Ustez, neba zaharrenaren bila joan ziren. Hark Gernikako bandan atera zuen plaza, ez joateko gerrara; baina fabrikako nagusiak hori jakinda, militarizatu egin zuen horrela lantegian jarraitzeko. Bila joan zitzaion polizia, baina azkenean ez zuten eraman.

7. Hiru herritarren salaketa izan zuen aitag (GAL-002/010)

Neba ez zuten atxilotu, eta gero aitaren atzean hasi ziren. Hiru herritarrek jarri zioten salaketa aitari, baina batek erretiratu egin zuen. Epaiketan bertan entzun zuen zein ziren salatzaileak. Haien ondorengoekin harreman ona izan arren, gertaturikoak ez ditu ahaztuta, aitag jasandakoak gogorrak izan ziren eta.

8. Ahaztu ez, apur bat asaskatu (GAL-002/012)

Orain, gerra garaikoak kontatzeak apur bat asaskatzen du. Orain ere martirtzat beste aldekoenak hartu izan dira.

9. Santo Tomasetako Bilboko azokan irabazle (GAL-002/014)

Azokari buruzko artikulua erakusten dute. Larrabetzura ezkondu zen lehenengo urtean, Libe auzoko batekin joan zen Santo Tomas eguneko azokara Bilbora, oilaskoekin eta madariekin. Berak irabazi zuen fruten saria madariekin: 700 pezeta eta garaikurra. Saldu ere polito saldu zuen.

10. Gabonetako erosketak eginda eta dirua poltsikoan (GAL-002/016)

Senarrak poz itzela hartu zuen andreak Gabonetako erosketak egin eta dirua amaitu barik heldu zelako etxera. Hurrengo urteetan lehiakide gogorrak aurkeztu ziren.

11. Txertatzeko adarrak ostu (GAL-002/017)

Aurreztutako diruarekin alokatzeko etxea prestatu zuten; lurra zikindu zieten, ez ziren hazi madariak lehenengo urteko moduan. Madariondoetako adaxkak ostu eta beste toki batzuetan omen daude haiekin egindako txertoak.

12. Jaboi-fabrikako langileentzako gelak (GAL-002/018)

Zahartzaroan alokaturiko etxearen errentetatik bizitzea aurreikusi zuten. Kanpotar asko heldu zen Larrabetzura xaboi-fabrikara eta haiei alokatzen zitzaizkien gelak. Geroago, Deriora joan ziren bizitzera eta akabo diru-iturria.

13. Kondena osoa bete zuen aitag kartzelan (GAL-002/019)

Liberen aitag kondena osoa bete zuen kartzelan: urtebete eta egun bat. Zahar atxilotu zuten, eta 78 urterekin hil zen.

14. "Agraria" ogerleko bat ordaintzen hasi zen (GAL-002/020)

Galdakaon ez zaio gelditzen lagunik. Baserritarren aseguruia (Agraria) ogerleko bat ordaintzen hasi eta bost mila pezetara iritsi zen. Hortik kobratzen du pentsioa. Behin baino gehiagotan egon da ospitalean eta beti hartu dute ondo. Orain erreginen pare bizi dela dio.

15. Galdakaoko lau gazte fusilatu zituzten (GAL-002/022)

Lau mutil hil zituzten Galdakaon; eta aitaren atzean ibili ziren nazionalak. Lau mutiletako bat udaleko txistularia izan zen; gauetan parrokoa jagoten egoten ziren, asturiarrek ez ziezaioten ezer egin. Nazionalak sartu zirenean, atxilotu zituzten eta heriotzara zigortu. Haietako batek eskatu zien uzteko apaizarekin hitz egiten; utzi zioten, baina apaizak ezezagunarena egin zion. Epaietarik gabe hil zituzten. Batzokia "casa roja"n egon zen, alboan Círculo Tradicionalista eta udaletxea.

16. Jose Luis Ereño etxerako bidean hil zuten (GAL-002/023)

Jose Luis Ereño Elexalden bizi zen; Círculo Tradicionalistako presidentea zen, eta gau batean etxerantzean hil zuten. Ez zen argitu nor izan zen hiltzailea. Gauetan, esnea banatu ondoren, etxerantzean, elkarrekin itzultzen ziren etxera; hil zuten gauean, aldiz, eguraldia txarra zenez, ez ziren itzuli batera, eta hil egin zuten.

17. Kartzelako atean fusilatutakoen zerrenda (GAL-002/024)

Larrinagako kartzelara, Santoñara edo Puerto Santa Maríara eramaten zituzten presoak. Berak ikusi zuen Larrinagako kartzelatik kamioietan presoak lotuta eramaten zituztela Derion fusilatzeko. Atean jartzen zuten fusilatutakoen zerrenda. Familiek drama itzelak bizi zituzten.

18. Martiriak? (GAL-002/025)

ETAkoei aurretik zabaldu zieten bidea, biktimak izandakoak baikin euskaldunak. Martiri hitzak min handia ematen dio, beti besteei buruz izaten da eta.

19. Borondatea bai, baina eskua urri (GAL-002/026)

Borondate onarekin joaten ziren gazteak gudari, baina beti laguntza zain. Traizioen erruz galtzen zituzten armak edo dena delakoa. Otxandianon izan zituzten luzaroan. Burdinazko gerrikoan ere traizioa gertatu zen. Porlan piloa sartu zen, eta ezertarako ez.

20. Baimenik gabe hartu zuten etxea (GAL-002/027)

Lau gela izan zituzten eta bi hutsik geratu ziren, hangoak ebakuatu egin baitziren. Hutsetan sartu ziren inolako abisurik gabe: batean Sanidad eta bestean Transmisiones. Aita baimenik gabe nola sartu ziren galdezka joan zitzaizenean, "usted es un chulo fascista" esan eta barrura sartu zuten. Alabaren aldarriei kasu eginez, utzi zuten aske, eta, gainera, hurrengo egunean, oparia eraman zieten, nolabaiteko ordain gisa.

21. Bonbak soloa askatu zuen, baina ez dinamita fabrika (GAL-002/028)

San Antonioetan ebakuazioa. Txahal bat kendu zieten, aitak txerria hil eta gatz-uretan sartu zuen. Ondo aztertuta egin zituzten erasoaldiak: erreka eta dinamita fabrikaren arteko soloetara bota zuten bonba; ez bidea, ez fabrika, ez zuten suntsitu.

22. Lagunak dinamita fabrikara, bera neskame (GAL-002/029)

Galdakaon, neskak dinamika fabrikara joaten ziren lanera. Liberen aitari hori ez zitzaion egokia iruditzen eta neskame bidali zuen. Orain, hango langileak izandakoek pentsio hobeak kobratzen dituzte.

23. Maitasunez hil zen mutil gaztea (GAL-002/030)

Liberekin erabat maiteminduta (Liberi ez zitzaion gustatzen) hil zen gazte bat. Azkenean zaharrago batekin ezkondu zen, baina berriz ere berdin egingo luke Libek.

24. Gordexolara ebakuatu (GAL-002/031)

Aita gurdia kargatzen ari zela ebakutzeko, zintzilik zegoen urdaiazpikoari begira geratu zitzairen asturiarra, baina garbi utzi zioten ez zitzairela ahaztuko. Gauetz atera ziren Galdakaotik; obusak botatzen ari zirela egin zuten ibilaldia. Arratsaldeko hiruretan heldu ziren Gordexolara. Han ez zuten gerrarik artean, baina beltzak (mairuak) sartu ziren handik; danborra jotzen zuten, eta, antza, zilarrezko dirutan ordaintzen zieten, dirua kontatzen aritzen ziren beti eta.

25. Zubia apurtuta eta gurdia pasatu behar (GAL-002/032)

Aita lehenago itzuli zen Galdakaora, eta kanposantuko elizatzxoan hildako bat aurkitu zuten. Eurek Sodupera iritsi zirenean, zubia apurtuta aurkitu zuten. Gurdia askatu, behiak askatu, zeramaten guztia gutxika-gutxika pasa, eta beste aldean berriz uztartu eta jarraitu zuten bidaia.

26. Ijitoekin gaua pasa eta etxerantz (GAL-002/033)

Zaramilloko denda batean ogi zuria ikusi zuten. Ez zioten hartu amari ez gerra aurreko dirua, ez Euzkadikoa. Ogerlekoak balio zuen. Elejabarriko pabiloietan ijitoak aurkitu zituzten eta haiekin eman zuten gaua. Hurrengo egunean, Bilbon ere zubia apurtuta aurkitu zuten eta Sodupeko moduan egin behar izan zuten: dena banan-banan pasatu.

27. Alemaniarren svastika kortako ateetan eta harrietan (GAL-002/034)

Galdakaoko etxera heldu zirenean, oiloa falta. Bidera atera zitzairen soka dandarrez zuela. Kortako ateetan alemaniarrek marraztutako svastika aurkitu zuten. Pasatzen ziren bideetan hiru harriren gainean svatika marraztuta zuen laugarren bat jarrita ikusi zuten. Italiarrak baldarrak ziren.

28. Gernikako sugarrak ikusi zituzten (GAL-002/035)

Amari bazkaria eramatera joan zen minara; eta itzultzean caza hegazkinak gainean ikusi zituen. Gernika bonbardatzen ari ziren. Gauean, zerua gorri eta Gernikako garrak ikusi zituzten. Astelehena Gernikan ingurukoak biltzeko egun handia izaten zela gogoratzen du.

29. Geuk defenditu ezean lurrak kenduko dizkigute (GAL-002/036)

Gernikako azoka indarra galtzen ari da; gazteek ez dute esku hartzen. Ez dakigu geure lurra defenditzen. Gamesak langileak kanporatuko ditu; gazte bizkorak izango dira, gainera. Etxean-etxean negarra.

30. Egunez galdutakoa, gauez berreskuratu (GAL-002/037)

Sugarretatik jakin zuten Gernika sutan zegoela. Egunkariak irakurtzeko aukerarik ez zegoen. Peña Lemonan eta Bizkargin, hegazkinek egunez apurtzen zizkieten lubakiak gauez berreraikitzen zituzten gudariek. Hildako piloa egon zen.

31. "Piper" ezizena (GAL-002/040)

Piper-hazia egiten zuten Kortezubin eta astoarekin piperra saltzen ibiltzen ziren. Hor sortu zen "Piper" goitizena.

32. Izenen jatorria (GAL-002/041)

Dei Egileor, galdakoztar gaztearen izena latinetik datorrela dio. Libe Sabiñe Libia Sabina da bera. Hildako ahizparen izena da Sabiñe. Beti deitu diote Libe eta hala sinatzen du.

33. Nahiago lantegian lan egin neskame bezala baino (GAL-016/001)

Neskame bezala lan egitea askoz txarragoa da lantegian lan egitea baino. Abusoa. Txiroen eta aberatsen arteko harremana.

34. Txiroak eta aberatsak (GAL-016/002)

Txiro eta aberatsen arteko pasadizo bat kontatzen du. Txiroak lurak zituen baina lan-tresnarik ez, eta aberatsak bitxiak zituen baina jatekorik ez. Txiroak tresnak lortu zituenean, jatekoa izan zuen eta aberatsak jeloskor begiratzen zion. Aberatsak, txiroa derrigor behar du bere aberastasuna mantentzeko baina ez da hortaz konturatzen. Justizia falta munduan.

35. Errotariarekin hazitako erregearen semearen ipuina (GAL-016/004)

Ipuina kontatzen du. Errege batek seme jaioberria saski batean utzi eta errekatik behera bota zuen, hau errota batera heldu zen arte. Errotariak hazi zuen haurra ta hamar urte zituela, erregea ehizan zebilela

36. "Hautxo txikia negarrez dago" sehaska-kantaren aldaera bat (GAL-016/005)

"Hautxo txikia negarrez dago" sehaska-kantaren aldaera bat abesten du.

37. Neskame lehenengo, dinamitetan lanean gero (GAL-025/003)

Bederatzi urte arte eskolara joan ondoren, neskame joan zen okindegira. Umeak zaintzen zituen. Gero, dinamita lantegian egin zuen lan, beste bi ahizparekin batera. Frantsesak eta ingelesak egon ziren. Soldata irabazteko, lan handia egin behar izaten zuen.

38. Baserriko bizimodu gogorra (GAL-025/004)

Goldaketan ibiltzen ziren soroetan eta oso merke saldu behar izaten zuten alea. Ogia eta artoa etxean egiten zituzten. Txahalak ere saldu egiten zituzten.

39. Argiztatzeko moduak (GAL-025/005)

Argindarrik eta urik ez zeukaten etxean. Karburoa, petrolioa eta kandela erabiltzen zuten. Batetik bestera ibiltzeko "galtzue" eta farola erabiltzen zituzten. Gerora linternak erabiltzen zituzten.

40. Sorginak amildegian egoten ziren (GAL-025/007)

Sorginak Pagatzen, amildegian, egoten zirela dio. Sorginak asko aipatzen zirela dio. Berak ez du sinesten. Errezatzen joaten ziren sorginen kontra.

41. Minerala eta dinamita Galdakaon (GAL-025/009)

Mineral asko zegoen Usansolon. Dinamita egiten lehenengo Santa Marinar hasi zirela dio. Gero jesuiten eskuetan egon zen lantegia eta gerra garaian, kendu egin zieten.

42. Erlujioa egunerokoan (GAL-025/010)

Baserrietara joaten ziren dantzara. Plazan bandak jotzen zuen. Soltean egiten zuten batez ere. Kofradia guztietan sartuta egoten ziren eta konfesatu egiten ziren astero. Egutero errezatzen zuten etxean. Domeketan mezara joaten ziren. Etxe denetan berdin zen.

43. Bizimodua euskaraz (GAL-025/012)

Ermita asko zeuden. Mineralak emandako lanagatik, erdaldun asko joan zen bertara lanera. Lehen erdaraz inork ez zuen egiten. Ahizparen etxea zelakoa zen kontatzen du.

44. Galdakaoko bonbardaketen kontakizuna (GAL-025/013)

Gerra garaian, harrobi batera sartzen ziren, babesleku modura. Lubakiak zeuden bertan. Hamar hilabetez gerra geldi egon zen eta halako batean, zerua hegazkinez bete zen, bera soroan zebilela. Eibarko batzuk zeuzkaten etxean. Bonbekin etxea suntsitu zioten. Bonbak bota eta bota egin zituztela dio. Bonbengatik abereak saltoka ikusi zituzten.

45. Neba eta jende asko hil zuten gerran (GAL-025/014)

Bere ahizparen atarian, bonbengatik ia familia guztia hil zen. Jende asko hil zela kontatzen du. Neba hil zioten gerran.

46. Nebaren hilketarengatik, ama gaixo (GAL-025/015)

Bederatzi neba-arreba ziren. Arotza zen gerran hil zioten neba. Penarengatik beraien ama gaixotu egin zen. Bera Cantabrica lantegian egon zen, ahizparekin, babestuta.

47. Eskolak non zeuden (GAL-025/020)

Eskolak non zeuden kontatzen du. Herriko bat apezpiku egin zuten eta gerra garaian hil egin zen. Asturiasko jende asko zegoen Galdakaon. Gerra garaian haiek kalte handia egin zutela dio.

48. Dinamita lantegian eta soroan (GAL-026/003)

Soroan, basoan, iturrian, abereak gobernatzen eta etxean lan egiten zuen baserrian. Hamalau urterekin dinamita egiten hasi zen lantegian. Lantegitik sorora joaten zen lanera. Atsedean gutxi hartzen zuen.

49. Bolbora egiten, baldintza hobeak (GAL-026/004)

Bolbora egiten hasi zenean, lan-baldintza hobeak zituen dinamita egiten baino. Ibaian garbitzen zituen arropak. Porrusalda jaten zuten askotan, txerrikiarekin.

50. Igandeetan erromeriara (GAL-026/005)

Erromeria igandeetan izaten zen. Aimarietarako etxeratu behar izaten ziren. Nobioarekin erromerian elkartzen zen eta gero etxera laguntzen zion. Filarmonika eta panderoa jotzen zituzten. Mutilek txakur handia ordaintzen zuten dantzarako. Diru asko zen.

51. Jatordua lantegian bertan (GAL-026/006)

Lantegira joaten zenean, han bertan bazkaltzen zuten. Lehengo janaria oraingoa baino elikagai hobeak zela dio. Kooperatiban "fota" izeneko ogia eskuratzen zuten.

52. Lantegiko baldintzak (GAL-026/008)

Lantegiko ordutegiak eta ohiturak azaltzen ditu.

53. Sopuertara ihesi abereekin (GAL-026/009)

Sopuertara joan ziren abereekin oinez. Babeslekura jatekoa eramatera joaten zen. Soldaduak joan zirenekoa azaltzen du.

54. "Gabon bonbon" esaera (GAL-026/017)

Esaera zaharrak esaten ditu. Gabonetako jatordua eta ohiturak kontatzen ditu. Gabon kantetan ibiltzen ziren. "Gabon bonbon, natibittete ase ta bete, San Estebantxe lehenago letxe."

55. "Urtebarri barri" kanta (GAL-026/018)

Astebarruan indaba jaten zuten. Domeketan garbantzua, okela eta ogia jaten zituzten. Gabon Zaharretan intxaur-saltsa jaten zuten. Urtebarri kantetan joaten ziren. "Urtebarri barri, dekonak ez dekonari, nik ez dekot eta niri, niri ostabere txarri belarri". Errege Egunean ere, erregen batzea egiten zuten.

56. "Ama buruan min dot" koplak (GAL-026/021)

"Hamar hamaiketako, eguzki beroa, ama buruan min dot, neu etxera noa. Ama buruan min dot, ez esan aiteri, gaueko errondiak galdu nauela ni. Gauean errondan ta goizean logure, ez zara zu maiteko osasunen gure." Azalpena ematen du.

57. Sorgina eta urrezko orraziaren ipuina (GAL-026/025)

Sorginaren ipuina kontatzen du, errekan orrazia kendu zionari mehatxu egin zionekoa. Aitak esaten zion orrazia ez zela sorginena, sorginak pertsonak zirela.

58. Izararekin batuta agertzen zenaren kontua (GAL-026/026)

Aitari norbait izararekin batuta agertu zitzaioneko kontua.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com